

## **GASTEIZKO UDALAREN GARDENTASUN KONTSEILUAREN IRIZPENA, GASTEIZKO UDALAREN GARDENTASUN-BETEBEHARREN BETETZE- MAILARI BURUZKOA. 2019KO EKITALDIA.**

### **SARRERA**

2020ko ekainean Gasteizko Udalak argitaratu zuen Gardentasunaren eta Edukien udal Atalak egindako **“Vitoria-Gasteizko Udalaren Publizitate Aktiboari eta Informazio Publikoa Eskuratzeko betebeharrei buruzko txostena. 2019ko ekitaldia”**.

Araudi Organikoaren 87. artikulua honako eginkizun hau ematen dio aholku-organo horri: *“publizitate aktiboaren arloan eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea babesteari dagokionez Gasteizko Udalak dituen betebehar eta konpromisoak betetzen diren zaintzea”*.

Eginkizun hori betetze aldera, Araudi horretako 89. artikulua dio Kontseiluak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikuluan aipatzen den **“publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostenari irizpena eman”** beharko diola.

*66. artikulua. Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko betetze-mailaren jarraipena*

**1.- Urte naturaleko lehen hiruhilekoan, txostena egingo da publikitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharrak aurreko urte naturalean zein neurritan bete diren jakiteko.**

*2.- Txosten horrek ondorengo alderdi hauek aztertu eta azalduko ditu, gutxienez:*

*a) Udalak eta 47. artikuluan aipatutako bere menpeko gainerako subjektuek zein neurritan bete dituzten publikitate aktiboko euren betebeharrak.*

*b) Gardentasunaren atarian kontsulta gehien izan dituzten edukiak.*

*c) Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen erabilera: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-osoarik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adintartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).*

**3.- Egindako txostena publikitate aktiboari dagokion informazio guztiarekin batera argitaratuko da.**

Gardentasunaren Udal Kontseiluak txosten hori aztertu eta eztabaidatu du eta, ondorioz, irizpen hau ematea erabaki du.

### **IRIZPENA**

Gardentasun-betebeharrak zenbateraino betetzen diren azaltzen da txostenean, bi alderdiri dagokienez; batetik, publizitate aktiboari dagokionez, eta bestetik, berriz, informazio publikorako sarbideari dagokionez. Bloke bakoitzean, galdatzen denaren arabera egituratzen da informazioa, eta egitura horri berari jarraitzen dio irizpen honek. Hobekuntza-proposamenak egiten dira atal bakoitzean, eta bideratutako jarduerak baloratzen. Nolanahi ere, ez dira gaiak banaka aztertzen, ezpada Kontseiluak zer edo zer esateko izan duen bloke bakoitzeko puntuak.

Positibotzat jotzen du Kontseiluak egituran gauzatu den aldaketa, horrela txostena arinago eta ulergarriago baitago. Zehaztasuna eta argitasuna eman zaio bide honetan. Laguntzazkoa da ere egiten den laugarren txostena denez, edukia ezaguna dela.

Jarraian, txostenaren atal ez berdinak aztertzen dira.

## **PUBLIZITATE AKTIBOA**

### **1. PRINTZIPIO OROKORRAK**

Aurten irisgarritasuna, elebitasuna, hizkera inklusiboa, eguneratze eta argitasunari dagokionez ez dira atzematen aldaketak. Berrerabilpenari eta elkarreragingarritasunari dagokionez, Open Data atarian 157 fitxategi argitaratu direla aipatzen da, aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, urte horretan zifra hori soilik handitzen zela adierazten zen.

- **Herritarrei ematen zaien informazioa kalitatekoa, argia eta guztientzako irisgarria izateko beharrari buruz.**

Bere ibilbidea hasi zuenetik ohartarazi izan du Kontseiluak horren gainean, oinarritzat harturik batetik Gardentasun Legearen 5.5 artikulua, zeinen arabera gardentasunaren

oinarrizko printzipioa baita informazio guztia ulergarria izatea, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa, eta desgaituentzat eskuragarri egotea bitarteko edo formatu egokien bidez, irigarriak eta ulergarriak izan daitezen, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki, eta bestetik, berriz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 50.5 artikulua, zeinek ezartzen baitu informazio horrek izan behar duela egiazkoa, erraz eskuratzeko modukoa, bereizkeriarik gabea, argia, erraza, zehatza eta herritarrek ulertzeko moduko mezuekin osatua, eta horretarako batez ere bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak eta ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen lagunduko duen beste edozein konposizio-bide erabili beharko dela, orria edo dokumentu-euskarria osatzeko.

Udal langileek Kontseiluari jakinarazi diote Gardentasun-ataria hobetzeko konpromisoaren birformulazioan atarira ikus-entzunezko edo grafikoko 10 eduki berri, batez ere didaktikoak, gehitzeko konpromisoa hartzen dela. Organo honek positiboki baloratzen du ekimen hori.

Hizkuntza argiari dagokionez, azkenengo berritasunak honako hauek ziren: puntu horretan komunikazio-proiektu argia garatzen ari zirela eta Errolda Unitatearen dokumentuak "itzultzeko" proiektu pilotu batekin hasi zela lanean.

Teknikariek azaldu dutenez, egungo konpromisoan edukiak hizkuntza argiaren parametroetara egokitzeko lanak lehentasunezkatzat ezarri direla. Kontseilua bat dator horrekin, eta Udalari honako hau eskatzen dio:

- **Proiektu honi ekitea, eta beste sailei hedatzea, komunikazio argia funtsezkoa da eta, informazioa herritargora iritsi daitekeela bermatzeko eta aldi berean, administratutako pertsonen eskubideak bermatzeko baliozkoa da.**

## **2. GARDENTASUN-ATARIAREN EGITURA**

Kontseiluak ontzat jotzen du Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Ataria, hala nola webgunea berritzeko aurreikusitako proiektua.

### 3. ANALISIA, BETEBEHARRAK BETE DIREN

#### 1.- ERAKUNDEARI, ANTOLAMENDUARI ETA PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

Aurreko urtean, Organoen gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiei buruz iradoki egin zen, bideoakten sistema dela eta, udal organotan eztabaidatzen dena jasotzeko erabiltzen dena, eta hitzen araberako bilaketarik egitea uzten ez duena, aukera hori bideratzeko eskatu zen. Momentuz aurrera eraman ez denez, hau gomendatzen du Udalaren Gardentasun Kontseiluak, bideoaktak direla eta:

- **Sistema bat ezar dadila, bilkuren aktetan hitzen araberako bilaketak egiterik izan dadin, eta, hartara, akta horiek kontsultatzen dituenaren intereseko gaien inguruan udal talde politiko bakoitzak egindako adierazpenak eskuratzea errazagoa gerta dadin.**

Alkatearen eta zinegotzien dedikazio-erregimenari dagokion atalean, txostenak adierazten du ordainsarien artxiboetan ageri dela, ez modu independente batean. Horrenbestez, Kontseilutik hurrengo iradokizun hau luzatzen zaio Udalari:

- **Udalbatzaren dedikazio-erregimena informazio-unitate propio bezala ager dadila.**

Antolamendu-egitura eguneratua dela eta, zuzendaritza-postuak betetzen dituzten pertsoneri buruzko ibilbide profesionalaren inguruko informazioa jasotzeko ondo deritzo Kontseiluak, nahiz eta lanpostu horietan jarduteko eskatzen den profilaria buruzko informaziorik ez eman.

Hortaz, puntu honetan, Kontseilutik aurreko hiru irizpenetan egindako gomendioa errepikatzeaz gain, gardentasun maila handiago bat lortzearren, iradokizun berri bat gehitzen du:

- **Udaleko zuzendaritza-lanpostuetan jardun ahal izateko beharrezkoa den profilari buruzko informazioa eman dadila.**
- **Publikoa egin dadila zuzendariak izendatzeko gauzatzen den hautatze-prozesua, merezimendu eta gaitasun-printzipioen arabera.**

Gobernu-planari, agintaldiko planari edo jarduera-planari buruzko atalari dagokionez, zerbitzu teknikoek azaldu dute agintaldiko plana lantzen ari direla kontu-ematea erakustearren, baina edukiaren %37a baino ez dela landu oraindik (konprometitutako 86 itemen 32 itemi buruzko informazioa). Eduki hori ez dago indexatuta webgunean, eta, beraz, ezin da aurkitu bilaketa egin ondoren.

Argitaratuta dago “Orain Gasteiz” Planaren kontu-ematea. COVID-19ren krisiaren ondorioz abiarazi zen plan hori, eta aurrekontu grafikoen plataforma eguneratzen ari dira. 2021eko aurrekontu-proiektua ere argitaratuta dago, eta laister open data formatuan kargatuko dute, formatu irekietan, Kontseiluak positibotzat jotzen duelarik hori. Horren harira, organo honek honako hau gomendatzen du:

- **Kontu-emateko tresna erabat eraginkor egon dadin behar diren ekintzak aurrera eraman daitezela.**

Azkenik, Udaleko alderdi politikoei buruzko informazioa dela eta, aurreko ekitaldietan bezala, baliabide publikoen erabileran gardentasun handiagoa lortzea posible litzatekeela atzematen da, eta proposamen bat egiten, nahiz eta indarrean dagoen legediak ez duen halako obligaziorik ezartzen.

Horrela, bada, gomendio hau egiten die Udalaren Gardentasun Kontseiluak udal talde politiko guztiei:

- **Argitara eman dezatela, ahal dela Udalaren webgunearen bitartez, Gasteizko Udalak egiten dien ekarpen ekonomikoaren berariazko kontabilitatea.**

Egia da, aurrekoetan adierazi izan denez, indarrean dagoen legediak ez dituela talde politikoak behartzen Udalaren ekarpenak zertarako erabiltzen dituzten publikoki eta aldian-

aldian informatzera. Are gehiago, kontu horiek ez ditu Kontu-hartzaitza Nagusiak fiskalizatzen, salbu eta Udalbatzak zuzkidura horien berariazko kontabilitatea eskatzen badie. Nolanahi ere, diru-esleipen hori dirulaguntza gisa hartu behar den edo ez alde batera utzita, agerikoa da Udalak talde politikoei egiten dien diru-ekarpen hori udal-aurrekontuetatik ateratzen dela, eta, gainera, diru horren erabilerak baldintza batzuk bete behar dituela<sup>1</sup>.

## 2.- GARRANTZI JURIDIKO-NORMATIBOKO INFORMAZIOA.

Betebeharrak betetzen defizit handiena Udal organoek hartutako erabakietan, zuzenbidea interpretatzen dutelarik edo ondorio juridikoak dituztelarik, ikusten da; aurreko urteetan ere gogora ekarri izan dugunez, maiz gertatu ohi da Udalean hartzen diren erabaki eta ebazpenek —hartzaille individual jakin bat izan ala ez izan— beste pertsona askorengan izan ohi dituztela ondorio juridikoak —edo herritar guztiengan—, nahiz eta pertsona horiek erabaki horietan berariaz aintzat hartuak ez izan. Gardentasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioek gomendatzen dute herritarrek oro ezagutu ahal izatea funtsezko erabaki horiek. Gai honetan, Kontseiluak gabezia nabarmen batzuk antzematen ditu. Esate baterako, Udalean dekretuak eta jarraibideak ematen direnean, ez dago zuzeneko bide bat Udalaren eta webguneko informazioa kudeatzen duen zerbitzuaren artean, erabaki horiek argitara emateko.

Aurreko txostenetan, aurtengoarekin ez bezala, adierazten zen zehazteke zegoela udal organoek hartutako akordioak —zuzenbidea interpretatzen dutenak nahiz ondorio juridikoak dituztenak— identifikatzeko aukera emango lukeen irizpidea edo prozedura. Kontseiluko kideek uste dugu lan hori burutu beharra dagoela. Nolanahi ere, udal sailek eman dituzten eta argi eta garbi ondorio juridikoak dituzten hainbat jarraibide edo zirkularren berri izan dugularik, horien inguruan gomendio zehatzak emateko aukera beretzat gordetzen du

---

<sup>1</sup>Hori guztia 19/2013 Legearen 6. artikulua eta 2/2016 Legearen 52. artikulua ildotik. Izan ere, horien arabera, besteak beste, udal talde politikoei buruzko informazioa eman beharra daukate udalek. Hain zuzen ere, Udalaren webgunean jasota dago udal talde politikoei jaso ohi dute diru-kopuruaren inguruko informazioa —bai talde bakoitzak hileroko jasotzen duen diru-kopurua, bai urteko batura—. Atal berean zehazten da, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 73.3 artikulua arabera, “*kopuru hau inola ere ezin dela erabili korporazioaren zerbitzurako langileei ordaintzeko, ez eta ondare izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko ere*”. Halaber, txostenak dio, legearekin batera “*Taldeek, ematen zaien diru-esleipenaren kontabilitate berezi bat eraman behar dute(la) eta udalbatzaren esku jarriko dute(la) Udalbatzak eskatzen dienean*”.

Kontseiluak, Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 89.1.b) artikuluan xedatutakoaren ildotik.<sup>2</sup>

Hori gorabehera, betebeharrak ez betetzeak hiritargoak dituen eskubideetan duen eragina ezagutzeko, gomendio hau egiten du Kontseilu honek:

- **Dekretu edo barne-jarraibide jakin batek herritarrentzat ondorioak izan ditzakeen erabaki ahal izateko irizpideak finkatzen ez diren bitartean, dagokion zerbitzuak aztertu ditzala argitara emateko egiten diren proposamen zehatzak honen inguruan, hau da: aplikatu beharreko araudia interpretatzera zuzendutako barne-akordioak, udal politika publikoak eskaintzeko moduan edo intentsitatean aldaketak eragin ditzaketenak, zerbitzu publikoak emateko moduari buruzko irizpideak aldatzen dituztenak, edozein udal zerbitzu edo prestazio eskuratzeko irizpideak arautu edo aldatzen dituztenak eta abar.**

Bestetik, badira oraindik ere ondorio juridiko agerikoak izan ditzaketen zenbait erabaki argitara ematen ez direnak, hala nola Organo Ekonomiko Administratiboaren ebazpenak edo Udal Aholkularitza Juridikoaren txostenak. Kasu horretan, dokumentuak identifikatuta daude, eta, hortaz, lehengo gomendio bera egiten du Kontseiluak berriro ere:

- **Daudekeen datu pertsonalak kendu eta gero, Udalaren webgunean argitara eman daitezela Gasteizko Udaleko Organo Ekonomiko-Administratiboaren ebazpenak, eta batez ere aplikazio zabala izan lezakeen doktrina —kasu partikular horretatik haragokoa— ezartzen dutenak.**
- **Kontu-hartzailera nagusiaren txostenak, edota Idazkaritza Nagusiarenak publikoak diren bezalaxe, argitara eman daitezela, baita Udal Aholkularitza Juridikoaren txostenak ere, hirugarrenengan ondorioak izan ditzaketen neurrian.**

---

<sup>2</sup>Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeeri buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean jasotzen diren betebeharrak hobeto betetzeko gomendioak egitea, dela ofizioz, dela edozein partikularrek eskatuta.

Bloke honetan, oraindik ez dira argitaratu Arau-testuak egiteko dosierretako oroitidazki eta txostenak; bereziki, arau-eraginaren analisiari buruzko txostena, uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak arautua.

Toki Araubidearen Oinarrien Legean ordenantzak eta araudiak onartzeari dagokionez ezartzen diren arauen haritik letorke dokumentazio hori ere argitara dadila galdatzea, eta orobat Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 127. artikuluan eta hurrengoetan araugintza dela eta jasotzen den erregulazio berriaren haritik. Eskakizun horren xedea litzateke, batetik, kontrolatu ahal izatea arauak onesteko orduan prozedura egokia jarraitu den, eta, bestetik, berriz, arau horiek araugintza onaren printzipioak betetzen dituzten ebaluatu ahal izatea, esan nahi baita: arauaren premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta eraginkortasuna.

Hori dena dela eta, Kontseiluak berriz ere gomendatzen du:

- **Garrantzi juridikoko informazioaren atalean —behin-behineko onespena jaso duten arauekin eta indarrean dauden testuekin batera— argitara eman daitezela “*testu normatiboak egiteko dosierrak osatzen dituzten oroitidazki eta txostenak...*”**

Azkenik, atal honetan, ez dago argitaratua Urteko Araugintza Plana, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen dituen.

Beraz, gomendio hau egiten du Kontseiluak berriro ere:

- **Araugintza Plana argitara dadila, Gasteizko Udalaren webgunean edo.**

### **3.- INFORMAZIO EKONOMIKOA, AURREKONTUEI BURUZKOA ETA ESTADISTIKOA.**

Zati honetan, Sinatutako hitzarmenen zerrenda, sinatzaileak, xedea, epea eta beste adierazten direlarik, hala nola Sinatutako kudeaketa-gomendioak, xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak eta beste adierazten direlarik, txostenen onartzen da testu osoak



eskuragarri jartzea faltako litzatekeela, hirigintza-hitzarmenenak salbu. Horrenbestez, Kontseiluak berriro gomendatzen du:

- **Txostenean esaten dena aintzat harturik, akordio horiei buruzko informazioa osorik argitara dadila, 2/2016 Legearen 55. artikuluaen ildotik. Hain zuzen ere, egokia litzateke —datu pertsonalak nahiz babestu beharreko enpresa edo elkarteetan bestelako datuak salbu geratzen direlarik— hitzarmenen zerrendan estekak jartzea, hitzarmen edo kudeaketa-gomendioaren testu osora jo ahal izateko.**

Zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezkoa den estatistika-informazioa dela eta, betetze-mailari buruzko txostenean jasota dago webgunean eskuragarri egongo den udal zerbitzuen katalogo bat egiteko proiektuaren bitartez ari zela garatzen puntu hori, informazioa bildu eta sistematizatzeko lehen fasea bukatuta dagoela, eta katalogo horren euskarri izango den eta argitaratzeko aukera emango duen aplikazioa prestatzeko lanetan zihardutela. Gaur egun birdefinitzen ari dira lan horiek, beraz, Kontseilua lan horien emaitzaren zain geratzen da, balorazio bat eman ahal izateko.

Hurrengo ataleko informazioa, ondare-ondasunen zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineke eskubide errealen bat dutenena, eta, hala bada, zein entitateri laga zaizkiona, urria da oraingoan ere, 2015eko datuak baitira jasotzen direnak.. Hori dela eta, gomendio hau egiten du Kontseiluak berriro ere:

- **Udal ondasunen inbentarioa eguneratu dadila.**

Atal honetan, nahiz eta legeak ezarritako betebeharra ez den arren, Udal Gardentasun Kontseiluak gogora ekarri nahi du Gasteizko Gizarte Kontseiluak 2021. urterako Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoen proiektuaren inguruan egindako derrigorrezko txostenean egindako gomendioa; bertan hurrengo hau adierazten zen:

“Eta oro har, ordenantza fiskalen gai honi helduta, Gizarte Kontseiluak berriro azpimarratu nahi du, pasa den urtean egin zuen bezalaxe, herritarrei kobratzen zaizkien tasei eta prezio publikoei buruzko informazio argia eta erraza ematea garrantzitsua dela, batez ere udal-zerbitzuen kostuei, dauden hobariei eta

horiek lortzeko eskakizunei buruzkoa”.

Hauetako item batzuk betetze txostenaren II. Eranskinean jasota daude, adibidez, Zerbitzuen kostuen azterketa. Hori dela eta, Udal Gardentasun Kontseiluak Udalari hurrengo hau eskatzen dio:

- **2021 urteko Ordenantza Fiskalen izapidetzan Udal Gizarte Kontseiluak emandako gomendioa betearaztearren, lan egin dezala.**

#### **4.- LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA**

Gardentasun Kontseiluak ez dauka atal honen inguruan ezer esatekorik, ezarritako betebeharrak betetzen direlako, nahiz eta oraindik egitura edo lanpostu-zerrenda aldatzea ekarri duten Tokiko Gobernu Batzarraren azken erabakien laburpena gehitzea falta den.

Aldi berean, positibotzat jotzen da hobekuntzen zerrendan, lanpostuen zerrenda ulertzeko aukera emango duen koadro sinoptiko bat argitaratzea.

#### **5.- TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU-ZORROAREN GAINEKO INFORMAZIOA**

Puntu hau zerbitzu katalogoarekin loturik dagoenez, Kontseilutik 3. puntuan jasotakoari jarraitzen dio, Zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezkoa den informazio estatistikoari dagokionez, hain zuzen ere.

#### **6.- BESTE ZENBAIT ALDERDI**

2019an egindako irizpenean bezala, Kontseiluak gogoratzen du, txosteneko “Lege-eta arau-esparrua” atalean zehazten denez, oinarrizko bi arauk xedatzen dituztela dokumentu honetan aipatzen diren betebeharrak: alde batetik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean,

eta bestetik, berriz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, beste lege-arau batzuk gorabehera.

Gardentasun eta Edukien Atalak Gardentasunaren Udal Kontseiluari jakinarazi dio Gardentasunaren Ataria hobetzeko konpromisoari dagokionez ("Gasteizko Agenda" - 2019-2023 agintaldiko Legegintzaldi Planan jasotzen dena), konpromiso hori honela ezarri zela hasiera batean:

- Gardentasunaren arloko legedian jasota dagoen eta gaur egun gardentasun-atarian eskuragarri ez dagoen informazioa argitaratzea ahalbidetzen duten prozedurak ezartzea, bai eta Gardentasun Kontseiluaren irizpenetan jasotako gomendioei erantzutea ere.
- Gaur egun Atarian eskuragarri dagoen informazioaren argitalpena automatizatzea, gizakiaren esku-hartzea eta egon daitezkeen akatsak murrizteko eta argitalpen hori sistematizatzeko helburuarekin.
- Epealdirako, Udalak 14 gardentasun-adierazle berri gehitzeko eta kontratazioari buruzko 10 adierazletan automatizaziora iristeko konpromisoa hartzen du.

Kontseiluak ez ditu zehazki ezagutzen zeintzuk diren etorkizunean sartu nahi diren itemak, nahiz eta berak emandako gomendioak aipatzen diren, eta, beraz, komenigarritzat jotzen da beste arau-testu batzuetatik sortzen diren betebeharrak gogoraraztea, hala nola Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea, jarraibide gisa har badaiteke ere.

#### Kontratazio publikoaren arloko legedia

Honela dago jasota Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.4 artikuluan: *“Sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren jarduera programatuko dute eta aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan garatuko, eta kontratazioari buruzko beren plana aurrez jakinaraziko dute, aurretiazko informazioaren iragarki baten bitartez; iragarki horretan, zeina 134. artikuluan aurreikusita baitago, gutxienez ere erregulazio harmonizatuko kontratuak agertuko dira.”*

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63.3 artikulua, *in fine*, honela dio: *“Halaber, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira: kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia; adjudikazio-prozeduran atzera egitea; prozedura hutsik deklaratzeta, bai eta errekurtsoen aurkezpena eta kontratuen behin-behineko etetea ere, errekurtsok aurkeztearen ondoriozkoa.”*

Hori dela eta, Gardentasun Kontseiluko kideek gomendio egiten diogu Gasteizko Udalari kontratazio publikoaren arloko legedian ezarritako gardentasunaren inguruko betebeharrak bete ditzala:

- **Urteko Kontratazio Plana argitara dadila (SPKL 28.4. art.)**
- **Kontratatzailearen profilean gehitu dadila errekurtsok aurkezteko aukeraren inguruko informazioa, baita errekurtsok aurkeztearen ondorioz kontratuak etetearen ingurukoa ere (SPKL 63.3. art.)**

Administrazio-prozeduraren arloko legedia

39/2015 Legearen 21.4 artikuluan honela dago jasota: *“Administrazio publikoek argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte webgunean, jendearen informaziorako, beren eskumeneko prozeduren zerrendak, haien gehieneko iraupenak eta administrazio-isiltasunaren ondorioak adierazirik.”* Udalaren Gardentasun Kontseilua jakitun da zer-nolako zailtasunak dakartzan zeregin horrek berekin, baina, nolana ere, uste du garrantzitsua dela informazio hori Udalaren webgunean argitaratzea. Horregatik, gomendio hau egiten dio Gasteizko Udalari:

- **Udalaren webgunean argitara dadila beraren eskumeneko prozeduren zerrenda, orobat adierazten direlarik horien gehieneko iraunaldiak, baita administrazioaren isiltasunak izango lituzkeen ondorioak ere.**

Udalaren webgunean bada “izapideei” buruzko atal bat, non eskabide mota bakoitzeko formulario edo eredu bana eskaintzen den, eta izapideak egingo dituen atalari buruzko informazioa ematen, baina ez da azaltzen bakoitzaren bitartez abian jartzen den prozedura, ezta ere ebazteko epeak adierazten eta legez eman beharreko informazioa ematen. Udalaren Gardentasun Kontseilua ohartu da eredu horietako askotan izaera

pertsonaleko datuak babestearen inguruko lege-oharrak ez daudela indarrean dagoen legedira moldatuta, eta, horrenbestez, honako hau ere gomendatzen du irizpen honetan:

- **Udalaren webgunean ageri den informazioa izaera pertsonaleko datuak babestearen arloko legedira moldatu dadila.**

Gardentasun eta Edukien Atalak adierazi du ere hasierako konpromisoa gerora birformulatu dela, betetze aldera bideratutako jarduerak hasierako diagnostiko batetik abiatu behar dela uste baitu, proposatutako ekintzen egingarritasuna ikusi ahal izateko, are gehiago gaur egungo egoeran, bai antolamendu-mailan, bai aurrekontu-mailan, COVID-19aren pandemiak eraginda. Konpromisoaren birformulazioa jasotzen duen dokumentua "gardentasunaren egoerari buruzko informazioa" webgunean argitaratuta dago. Honela laburbiltzen du konpromisoa (horietako batzuk jada baloratu dira dagokion blokean):

- Hasierako konpromisoari eusten zaio, alegia, informazio-itemen kopurua handitzea (ez da egokia adierazleei buruz hitz egitea), baina 10 item berri ezartzen dira aldiaren amaieran.
- Atarian ikus-entzunezko edo grafikoko 10 eduki berri gehitzeko konpromisoa hartzen da, nagusiki didaktikoak.
- Lehentasunezko zat jotzen dira edukiak hizkuntza argiaren parametroetara egokitzeko lanak.
- Gardentasunaren Atariko informazioaren eta Datu Irekien Atariaren arteko harremana areagotzearen aldeko apustua egiten da, bai eta parte hartzeko eta kontuak emateko tresnen artekoa ere.

## **7.- ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ENPRESA PUBLIKOAK**

Bai Estatuko Gardentasun Legearen 2. artikulua, bai Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 49. artikulua udaletara eta udal enpresa publikoetara hedatzen dute gardentasun-araubidea, administrazioek entitate horietan duten partaidetza, zuzeneko nahiz zeharkakoa, kapitalaren ehuneko 50etik gorakoa delarik.

Txostenean ez da aipatzen ez-betetze esanguratsurik. Hala ere, II. Eranskinean aipatzen denez, datu pertsonalen erabilerarekin zerikusia duten erreklamazioak direla-eta 2019an udal-enpresei eragiten dieten ebazpen judizialak argitaratzeari utzi diote.

Puntu horretan, Kontseiluak honako hau gomendatzen du:

- **Datu pertsonalak bereizi ondoren, udal-sozietate publikoei eragiten dieten ebazpen judizialak argitaratzea.**

Halaber, urteko aurrekontuetan, langileei buruzko eranskinean, datuak ez dira homogeneous. Beraz, Gardentasun Kontseiluak honako hobekuntza hau iradokitzen du:

- **Udal-enpresen aurrekontuko langileen eranskinean jasotako datuak indarrean dagoen legeriaren eskakizunetara egokitzea.**

Bestaldetik, desgaitasunen bat duten langileei dagokienez, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zeneko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluan honela dago jasoa: "*50 langile edo gehiago dituzten enpresa publiko zein pribatuak beharturik daude horien arteko 100tik 2 gutxienez desgaitasun bat duten langileak izatera*".

Arau hau aplikagarri zaie udal enpresa publikoei: AMVISA, TUVISA, Ensanche 21 Zabalgunea SA eta GILSAri. Aitzitik, ez zaio aplikagarri Udalari berari, ezta beraren erakunde autonomoei ere —Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Dantza Kontserbatorioa, Musika Eskola—. Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren 59. artikuluan aurreikusitakoa da horiei aplikatzekoa: "Enplegu publikoaren eskaintzetan, deialdiko lanpostu hutsen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da desgaituek betetzeko".

Honako honi erreparatu dio Udalaren Gardentasun Kontseiluak: Udalak argitaratu ditu datu horiek; ez, ordea, udal enpresa publikoek eta erakunde autonomoek.

Funtsean, bi arau horien xedea berbera da, hau da, ekintza positiboko neurriak ezartzea enpresek eta, bereziki, administrazioak desgaitasunen bat duten pertsonak kontrata ditzaten, kontratatutako pertsona desgaituen portzentajea plantilletan gutxienez % 2ra irits

dadin. Hortaz, oraingo honetan ere, hau gomendatzen du Kontseiluak:

- **Argitara eman dadila, eta eguneratuta mantendu, udal enpresa publikoetan eta udal erakunde autonomoetan lanean diharduten pertsona desgaituen kopuruaren eta portzentajearen inguruko informazioa, eta orobat adieraz dadila zer-nolako lan-harremana duten.**

## INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEA

Gasteizko Udalean ahaleginak egin dira berariazko administrazio-prozedura bat gaitzeko, herritarrek legez aitortua zaien eskubidea baliatzerik izan dezaten. Era berean, argitaratuta daude Udalaren datu estatistikoak, eskabideen, onartu ez direnen, erantzuteko epeen eta besteren inguruan.

Kontseiluari emandako informaziotik ondorioztatzen denez, herritarrek helburu horrekin egindako eskaeren kopurua handitu bada ere, emandako erantzunen kopurua ez da neurri berean handitu. Horrek kezkatu egiten ditu Kontseilukideak, eta emandako erantzunetatik, 44, soilik 19 eman dira hilabeteko epean, hau da, erdia baino gutxiago.

Horrenbestez, organo honek honako hau gomendatzen du:

- **Informazio publikoa eskuratzeko eskaerei legez ezarritako epeetan erantzun ahal izateko neurri egokiak hartzea.**

Azkenik, 2019. urtean emandako irizpenean bezala, komenigarritzat jotzen da proposamen sorta bat planteatzea, arlo horretan gardentasuna hobetzen lagunduko bailuke horrek:

- **Udal enpresa publikoei nahiz erakunde autonomoei informazio publikorako sarbidea izateko egiten zaizkien eskabideak onartzen ez edo ukatzen direneko ebazpenak argitara eman daitezela.**

- **Euskadiko Gardentasun Batzordearen ebazpenak argitara eman daitezela, Udalari, udal enpresa publikoei nahiz erakunde autonomoei informazio publikorako sarbidea izateko egindako eskabideei uko egin izanaren ondorioz aurkeztutako erreklamazioei dagozkienean.**

## **GARDENTASUN ATARIRA EGINDAKO BISITAK**

Gardentasun Kontseiluak ez du atal honetan ezer adierazi nahi.

## **ONDORIOAK**

Lehenik eta behin, Kontseiluak Gardentasun eta Edukien Udal Unitatearen lana eskertu nahi du; izan ere, haren eginkizuna funtsezkoa da administrazio gardenagoa lortzeko eta Gasteizko Udalak administrazio onari estuki lotutako gai batean egindako aurrerapena ebaluatzeko.

Legeak eskatzen dituen puntuak ez betetzeari dagokionez, egiaztatu da aurreko urteetakoak errepikatzen direla. Kontseiluak kezka azaldu du, batez ere, honako hauengatik:

- Agintaldiko edo gobernuko plana argitaratzea.
- Zuzenbidea interpretatzea dakarten edo ondorio juridikoak dituzten udal-organoei hartutako akordioei buruzko publizitatea.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Organo Ekonomiko Administratiboaren ebazpenen publizitatea, eta, bereziki, planteatutako kasu partikularretik harago, aplikazio zabala izan dezaketen doktrinen publizitatea.
- Aholkularitza Juridikoko Udal Zerbitzuak egindako txostenen publizitatea, baldin eta hirugarrenen aurrean ondorioak badituzte.



- 
- Udal-sozietate publikoei dagozkien ebazpen judizialen publizitatea.
  - Ondasunen udal-inbentarioa eguneratzea.

Halaber, garrantzitsutzat jotzen da zuzendaritza-kideak izendatzeko hautaketa-prozesuaren gardentasunari buruzko iradokizuna kontuan hartzea.

Gardentasunaren Kontseiluak aho batez eman du irizpena, Gasteizen, 2020ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran.